

Covid-19aren krisiak eragin handia izan du kanpo-merkataritzan, baina Euskal AEko merkataritza-saldo positiboari eutsi zaio 2020. urtean


Abenduan, esportazioak % 10 gutxitu dira, eta inportazioak % 14,3

2020. urte osoan, Covid-19aren krisiak markatua, Euskal AEko ondasunen esportazioak 20.864,5 milioi eurokoak izan ziren, hau da, 2019an baino % 17,8 gutxiago. Inportazioak 15.704,9 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urtean baino % 21,9 gutxiago, Eustaten datuen arabera.

Eskuragarri dagoen serie historikoaren bigarren erregistro txarrena da, 2009koak soilik gainditua, orduan esportazioak % 26,3 murriztu baitziren eta inportazioak % 38,9. Izan ere, serieak zazpi alditan soilik izan ditu hazkunde negatiboak, eta inoiz ez dira % 3tik gorakoak izan, aipatutako bi datetan izan ezik.

2020ko merkataritza-fluxuen jaitsierak eragina izan du bai esportazioetan bai inportazioetan, eta horri esker merkataritza-saldoa positiboa izan da. Hala, 2020rako superabita 5.159,6 milioi ingurukoa izan da, 2019an baino 115,9 milioi gutxiago, hau da, % 2,2 gutxiago.

Euskal AEko kanpo merkataritza lurralde historikoaren arabera. 2019-2020



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Merkataritza-saldo "ez-energetikoa" ere positiboa izan da, eta 7.106,4 milioira iritsi da; horrek esan nahi du % 18,0ko murrizketa izan dela aurreko urtearekin alderatuta (8.661,4 milioi). Era berean, "produktu energetikoen" saldoa, 2019an negatiboa izan dena 3.385,9 milioitan, -1.946,8 milioira murriztu da; hau da, % 42,5 gutxiago izan da energiaren merkataritza-defizita.

Covid-19aren pandemiak 2020ko martxotik aurrera ezohiko moduan markatu zuen esportazio- eta inportazio-jarduera ekonomikoa. Hilabete horretan, ondasunen esportazioak % 21,8 murriztu ziren,

eta inportazioak % 14,9. Baina apirilean eta maiatzean islatu ziren gehien kanpo-merkataritzan izan zituen ondorioak. Apirilean esportazioak aurreko urtean, 2019an, zenbatutakoan erdiak baino gutxiago izan ziren (-% 53,2), eta maiatzean esportatutako zenbateko ekonomikoa % 36 murriztu zen.

Esportazioen eta inportazioen bilakaera, hilabetea, lurralde historikoaren arabera. (Δ 2020/2019)

	Esportazioak				Inportazioak			
	Euskal AE	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskal AE	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	-17,8	-14,0	-20,0	-18,7	-21,9	-10,7	-28,4	-15,3
Urtarrila	1,4	-2,7	14,5	-8,8	-5,9	-2,1	-1,6	-19,7
Otsaila	-7,9	4,7	-6,4	-19,7	-13,6	-8,8	-18,5	-4,8
Martxoa	-21,8	-29,3	-20,9	-16,6	-14,9	-13,1	-12,8	-22,0
Apirila	-53,2	-69,2	-51,5	-44,3	-43,2	-55,3	-43,5	-31,1
Maiatza	-36,0	-34,5	-37,7	-35,5	-43,8	-36,4	-49,9	-34,1
Ekaina	-14,4	-7,9	-6,3	-28,0	-25,5	-20,0	-30,1	-19,3
Uztaila	-13,4	-7,0	-18,8	-13,7	-16,7	-0,1	-23,0	-14,5
Abuztua	-17,1	-17,2	-22,6	-11,2	-26,2	11,2	-37,8	-18,7
Iraila	-8,2	3,4	-21,6	-2,3	-23,5	-15,8	-32,1	-7,8
Urria	-15,3	-3,8	-23,9	-15,4	-20,0	6,1	-35,0	-7,1
Azaroa	-11,6	-1,6	-18,2	-11,8	-12,7	-5,2	-21,4	4,2
Abendua	-10,0	-12,0	-10,1	-8,4	-14,3	16,9	-30,8	-1,1

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Hurrengo hilabeteetan, esportazioen joera negatiboa nabarmen leundu da, eta irailean gutxieneko kopurura iritsi da, -% 8,2ra, Covid-19a hasi zenetik. Azken hiruhilekoa hasi da urrian gorakada negatibo batekin, eta urte arteko tasa (-% 15,3) urtearen erdialdekoa bezalakoa izan da; dena dela, azkar baretu da, eta abenduan, ordea, % 10 negatibo batera jaitsi da.

Era berean, inportazioen minimoak apirilean eta maiatzean izan dira, -% 43,2ko eta -% 43,8ko urte arteko tasekin, hurrenez hurren, eta hileko bilakaera esportazioenaren paraleloa izan da, balio negatibo handiagoetan bada ere: % 20 inguru edo gehiago urteko azken bi hilabeteak iritsi arte, zeinetan -% 12,7ra murriztu baitira azaroan eta -% 14,3ra abenduan.

Arabako kanpo-merkataritza da kalte gutxien izan duena 2020an

2020. urte osoan, hiru lurraldeek uzkurdu nabarmena izan dute kanpoko merkataritza-jardueran.

Beherakada orokortuen testuinguru horretan, Araban inpaktua txikiagoa izan da besteen aldean. Esportazioak % 14 eta inportazioak % 10,7 murriztu dira. Eta hori dena, martxoan (-% 29,3) eta, bereziki, apirilean (-% 69,2) esportazioek izan duten beherakada itzelaren ondoren. Bi hilabete horietan Araba izan zen lurralde kaltetuena alde handiarekin.


Gipuzkoa izan zen 2019an esportazioetan (% 11,6) eta inportazioetan (% 3,6) igoerarik eduki zuen lurralde bakarra, baina 2020an lehenengoan % 18,7 eta bigarrenen % 15,3 galdu ditu.

Azkenik, Bizkaiak, zeinek Arabak bezala ondoz ondoko bi urteko beherapena eduki duen bai esportatuetan bai inportatuetan, balio handienak hartu ditu bi fluxuetan: esportazioek % 20,0 egin dute behera eta inportazioek % 28,4. Gainera, balio negatibo altuak bigarren seihilekoan zehar luzatu egin dira, eta Gipuzkoan eta, bereziki, Araban, ordea, krisiaren ondorioak nolabait arindu direla ikusten da.

Hala ere, esportazio ez-energetikoak bakarrik kontuan hartuz gero, % 20 izan beharrean, Bizkaiko esportazioen jaitsiera % 11,3ra mugatu litzateke, lurralde horretan horrelako esportazioek duten garrantzia kontuan hartuta.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

10 pertsona baino gutxiagoko turismoen muga-zergen partida da pisurik handiena izan duena Euskal AEko esportazioetan, eta % 23,3ko urte arteko jaitsiera izan zuen 2020an

2020an, 25 partida esportatzaile nagusiek gure erkidegoak esportatutakoaren balioaren erdia baino gehiago bildu dute (% 53,6).

Euskal AEko esportazioaren partidarik garrantzitsuenak, 2020an, 10 pertsona baino gutxiagoko turismoak eta ibilgailu automobilen zati eta osagarriak izan dira.

Lehenengoa, 1.757,1 milioirekin, esportazio guztien % 8,4 izan da, azken urtean % 23,3ko jaitsiera izan ondoren. Bigarrenarako, jaitsiera % 19,5ekoa izan da, eta esportatutako 1.421,9 milioiek guztizkoaren % 6,8 bildu dute. *Salgaien garraiorako ibilgailu automobilek* ehuneko bera dute; partida hori hirugarren postuan dago rankingean, 1.416,2 milioi euroekin, eta % 0,4 baino ez da murriztu 2019an esportatutakoen aldean.

Partidarik garrantzitsuenen zerrenda horretatik, bik soilik izan dituzte urte arteko hazkundeak. *Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen zatiak* eta *Ardo eta mahats freskoak* dira. Lehenengoa, 373,8 milioi euroko esportazioekin, % 85,8 hazi da, eta bigarrena % 2,4, 2020an 205,2 milioi eurora iritsita.

Aitzitik, esanguratsuak dira *Petrolio-olio finduen* eta *Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako* izenekoaren jaitsierak, bai kopuru absolutuetan, bai erlatiboetan. Lehenengoak 813,5 milioi euroko esportazio-balioa lortu du, guztizkoaren % 3,9 dena, aztertutako

aldian % 43,9ko urte arteko jaitsiera izan ondoren. Bigarrenak % 69,1 egin du atzera, urte batean zazpiehun milioi gutxiago esportatu dira, eta 333,9 milioi eurora mugatu ditu esportazioak.

Euskal AEko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Mila eurotan. 2020

	2019	2020	%	20/19 (%)
Guztira	25.396.938	20.864.546	100	-17,8
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.289.966	1.757.142	8,4	-23,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	1.767.156	1.421.915	6,8	-19,5
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.422.173	1.416.185	6,8	-0,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	956.987	907.193	4,3	-5,2
Petrolioaren olio finduak	1.451.244	813.468	3,9	-43,9
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	516.781	493.937	2,4	-4,4
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	201.218	373.767	1,8	85,8
Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak	476.094	366.412	1,8	-23,0
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	489.226	342.986	1,6	-29,9
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	1.080.946	333.935	1,6	-69,1
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	290.381	282.389	1,4	-2,8
Eskuzko erremintetarako tresna trukagarriak edo makina-erremintetarako	308.942	259.465	1,2	-16,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	379.043	251.364	1,2	-33,7
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	254.866	249.809	1,2	-2,0
Ardoa, mahats freskoarena	200.393	205.165	1,0	2,4
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraigailuak...ores,...	223.911	202.004	1,0	-9,8
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	223.045	188.792	0,9	-15,4
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	219.502	181.144	0,9	-17,5
Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	194.585	173.958	0,8	-10,6
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	183.245	167.758	0,8	-8,5
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	216.718	167.251	0,8	-22,8
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	184.658	157.980	0,8	-14,4
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	166.314	157.802	0,8	-5,1
Ontziak eta paketatze aparatua garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	162.547	157.098	0,8	-3,4
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaarako euskarriak	160.248	154.743	0,7	-3,4

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Europar Batasunerako (EB-27) esportazioak % 12,6 jaitsi dira, eta inportazioak % 13,4

Gure esportazio guztien % 62,9, 13.124,9 milioi euro, Europar Batasunera egin dira, hau da, aurreko urtean baino % 12,6 gutxiago. Inportazioen kasuan, murrizketa % 13,4koa izan da, 8.605,9 milioira iritsiz. Horrela, Europar Batasunarekiko merkataritza-saldoa positiboa izan da (4.519 milioi), baina aurreko urtean baino 561,7 milioi euro txikiagoa.

Zehatzago esanda, Alemania izan da 2020an gure merkataritza-bazkide nagusia. Herrialde horretara bideratu da esportatutako guztizkoaren % 17,3 (3.607,4 milioi), eta hortik etorri da inportatutakoaren antzeko proportzioa, % 16,3. Frantzia izan da gure nazioarteko merkataritza-ingurune bigarren herrialde dinamikoena, Euskal AEko esportazioen % 15,5 eta inportazioen % 9,9 bildu baititu.

Estatu Batuek, Erresuma Batuak eta Italiak biribiltzen dute bost herrialdeko taldea zeinetara Euskal AEk bideratu dituen esportatutako ondasun guztien erdiak.

Inportazioei dagokienez, Alemaniatik eta Frantziatik aipatutakoez gain, Txinatik, Italiatik eta Mexikotik etorritakoak nabarmendu behar dira, bost herrialde horien artean 2020an inportatutakoaren % 43,7 izanik.

Euskal AEko kanpo-merkataritza, helmugako herrialdeen arabera. Mila eurotan. 2020

	Esportazioak	%	Inportazioak	%	Balantzea	Estaldura-tasa (%)
GUZTIRA	20.864.546	100,0	15.704.926	100,0	5.159.620	132,9
Alemania	3.607.353	17,3	2.562.413	16,3	1.044.941	140,8
Frantzia	3.232.933	15,5	1.560.155	9,9	1.672.778	207,2
Estatu Batuak	1.362.537	6,5	565.307	3,6	797.230	241,0
Erresuma Batua	1.343.328	6,4	507.284	3,2	836.045	264,8
Italia	1.067.472	5,1	849.809	5,4	217.664	125,6
Belgika	924.011	4,4	356.334	2,3	567.676	259,3
Portugal	867.840	4,2	410.973	2,6	456.867	211,2
Herbehereak	786.136	3,8	472.517	3,0	313.619	166,4
Polonia	514.591	2,5	328.405	2,1	186.186	156,7
Mexiko	436.662	2,1	648.270	4,1	-211.608	67,4
Txina	436.350	2,1	1.242.995	7,9	-806.646	35,1
Txekiar Errepublika	310.009	1,5	152.989	1,0	157.021	202,6
Errusiar Federakundea	287.568	1,4	571.898	3,6	-284.330	50,3
Turkia	277.203	1,3	178.207	1,1	98.997	155,6
Suedia	272.462	1,3	300.516	1,9	-28.054	90,7
Austria	250.901	1,2	203.171	1,3	47.730	123,5
Suitza	245.188	1,2	107.846	0,7	137.342	227,3
Norvegia	225.916	1,1	267.663	1,7	-41.747	84,4
Maroko	218.484	1,0	28.341	0,2	190.144	770,9
Brasil	217.156	1,0	247.123	1,6	-29.967	87,9

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

2020KO ABENDUA

2020ko abenduan, ondasunen kanpo-merkataritzaren portaerak oraindik ere krisi pandemikoaren luzapenak markatuta jarraitu du.

Euskal AEko ondasunen esportazioak 1.638,3 milioi eurora iritsi ziren; hau da, 2019ko abenduarekin alderatuta, % 10 jaitsi ziren. Bestalde, inportazioak, 1.292,8 milioi, % 14,3 jaitsi ziren urte arteko tasan.

Horren ondorioz, Euskal AEko merkataritza-saldoa positiboa izan da abenduan 345,5 milioitan, eta 34,6 milioi gehiagokoa 2019ko abenduan erregistratutakoa baino.

Aurreko hilabeteetan bezala, produktu energetikoen jokamoldeak eragin handia izan du urtetik urterako beherakadetan. Esportazio energetikoak % 34,1 jaitsi dira, eta ez-energetikoak % 7,9.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2020 Abendua

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Abendua			Abendua		
	2019	2020	Δ %	2019	2020	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.820.145	1.638.284	-10,0	1.509.187	1.292.750	-14,3
PRODUKTU ENERGETIKOAK	144.683	95.387	-34,1	444.017	161.852	-63,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.675.462	1.542.898	-7,9	1.065.170	1.130.899	6,2
URTEKO METATUA	25.396.938	20.864.546	-17,8	20.121.458	15.704.926	-21,9
PRODUKTU ENERGETIKOAK	2.022.885	951.362	-53,0	5.408.799	2.898.185	-46,4
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	23.374.053	19.913.185	-14,8	14.712.659	12.806.741	-13,0
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	470.657	414.251	-12,0	324.643	379.529	16,9
URTEKO METATUA	7.147.860	6.149.756	-14,0	4.183.414	3.735.587	-10,7
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	709.885	637.969	-10,1	871.311	603.296	-30,8
URTEKO METATUA	9.719.368	7.779.566	-20,0	11.694.210	8.373.004	-28,4
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	639.603	586.065	-8,4	313.232	309.925	-1,1
URTEKO METATUA	8.529.710	6.935.225	-18,7	4.243.833	3.596.336	-15,3

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Produktu energetiko mota horretarako inportatutakoaren eta esportatuaren artean dagoen zuzeneko erlazioak azaltzen du inportazio energetikoak ere jaitsi egin direla, % 63,5 (282,2 milioi). Hala ere, ez-energetikoak % 6,2 hazi dira.

Hala ere, oro har, Euskal AEko ondasunen inportazioak, guztira 1.292,8 milioi eurorekin, % 14,3 jaitsi ziren 2019arekin alderatuta.

Lurraldeka, Gipuzkoan esportazioek % 8,4 egin dute behera, hiru lurraldeen arteko datu gutxien negatiboena. *Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak* (-% 20,5), *Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak* (-% 55,6) eta, batez ere, *Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak* (-% 78,4) izeneko partidak izan dira eragin handiena eduki dutenak Gipuzkoan 2020an 53,5 milioi gutxiago esportatzeko.

Bizkaiko esportazio-atzerakada, abenduan 2019ko hil berean esportatutako zenbatekoaren % 10,1 dena, batez ere *Petrolio-olio finduetan* kontzentratu da. Bizkaiko esportazio-puska nagusia izan da, eta aurreko urteko hilabete berean baino 48,9 milioi gutxiago esportatu zituen (-% 39,9). Pisu handieneko produktu ez-energetikoen artean, bilakaera positibo batzuk ikusten dira:

Azkenik, Arabak esportazio-portaerarik txarrena izan du abenduan, esportazioak -% 12,0 jaitsi baitira, batez ere jaitsi direlako *10 pertsona baino gutxiagoko turismoei* eta *Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak* delakoari dagozkien esportazio-partidak (% 31,3 eta % 47,5, hurrenez hurren).

Aipatzekoa da lurralde horretako partida nagusietako batek, *Kautxuzko pneumatiko berriek*, portaera ona izan duela, % 10,7ko hazkundera izan baitu joan den abenduan, 2019ko hil beraren aldean.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

